



IRAZUSTABARRENA-HUIZI GARAILE BERANGON

Aristorena-Saez menderatu zituzten atzo (25-21) partidu entretenitu baten ostean; etzi, Martin-Eizmendi eta Goikoetxea-I.Agirre neurtuko dira Getxon (19:00etan)

Nesken Gomazko Paleta MPB Zirkuituko laugarren partidua atzo jokatu zen Berango-ko udal pilotalekuan. Kantxa estua eta txikia izateak asko bizitu zuen lau protagonisten jokua eta lehia polita ikusi zen bertan. Azkenean, gipuzkoarren garaipena adierazten zuen markagailuak; Irazustabarrena-Huizi, 25; Aristorena-Saez, 21.

Lehen zatia oso borrokatua izan zen, berdinketa askorekin eta jokaldi asko tarteko gainera. Erdialdera abantaila hartu zuten Hernani-koek (17-11) eta ostean mantentzearekin nahikoa izan zuten. Lau pilotariak ondo jokatu zuten baina agian nabarmentzekoa Maider Huizi. Bere ezker dotore eta indartsuarekin min egin zuen atzean, zabalean zein txokoan.

Hurrengo hitzordua Getxon izango da etzi ostirala iluntzeko 19:00etan. Bertan Nagore Martin eta Garazi Eizmendi faborito dira Goikoetxea eta I.Agirre-ren kontrakoan. Abuztuko geldialdiaren aurretik jokatuko den azken partidua izango da.

IRAZUSTABARRENA-HUIZI VENCEN EN BERANGO

Doblegaron a Aristorena-Saez (25-21) en un entretenido partido; este viernes, Martin-Eizmendi rivalizan con Goikoetxea-I.Agirre en Getxo (19:00h.)

El cuarto partido de la liguilla clasificatoria del Circuito MPB de Paleta Goma Femenina tuvo lugar ayer en el coqueto frontón de Berango.

Vencieron las chicas de Hernani, Irazustabarrena-Huizi, ante la dupla navarra-alavesa formada por Aristorena y Saez (25-21). Las pequeñas dimensiones de la cancha hicieron que las protagonistas sacaran su versión más 'alegre' para entretener a los pelotazales allí congregados.

La primera parte fue muy igualada y llena de alternancias en el juego. No obstante, a mitad de partido, las guipuzcoanas tomaron una ligera ventaja (17-11) que después supieron mantener para vencer. Las cuatro paletistas jugaron a buen nivel si bien merece especial mención la zaguera zurda de Hernani. Huizi exhibió su potencial e hizo mucho daño tanto con el golpe como con la cortada al txoko o la dos paredes.

La siguiente cita del circuito será este viernes en Getxo, 19:00h. Nagore Martin y Garazi Eizmendi son favoritas ante Goikoetxea-I.Agirre. Será el último duelo antes del parón de agosto.